



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

OSALAN

1. 2023. urtean langile autonomoen artean Laneko Arriskuen Prebentzioan prestakuntza sustatzeko deialdia 2
2. Prebentzio ordezkarien oinarriko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2023 urterako deialdia 4
3. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntza 2023 6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2023. urtean langile autonomoen artean Laneko Arriskuen Prebentzioan prestakuntza sustatzeko deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2023. urtean langile autonomoen artean Laneko Arriskuen Prebentzioan prestakuntza sustatzeko deialdia egin eta diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2023. urtean langile autonomoen artean Laneko Arriskuen Prebentzioan prestakuntza sustatzeko deialdia egin eta diru-laguntzak arautzen dituena (euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301167e.shtml).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

40.000 euro erabiliko dira prestakuntza-jardueretarako. Jarduera horiek, zalantzarik gabe, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko prestakuntza sustatzera bideratu beharko dira, Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dauden langile autonomoen artean, baldin eta langile horien lanbide-jardueraren helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan badago.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak aurrez aurre edo on-line saioen bidez eman ahal izango dira. On-line saioak zuzeneko saioetan gauzatu beharko dira aplikazio edo sistema telematikoen bidez, diruz lagundu daitezkeen jardueraren saio guztietan (on-line saio sinkronoak) ikasleek eta irakasleek parte hartuko dutela bermatzeko. Jarduera horiek guztiak gutxienez 30 eskola-orduko prestakuntza-jardueretan gauzatu beharko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

0 pertsona prestatu dira. Aurrekontu-gauzatzea 0 eurokoa izan da.

Emaitzak espero zirenak izan ez badira ere, kontuan izan behar da langile autonomoak ez daudela behartuta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera. Horregatik, batzuetan, langile autonomoek ez dute prestakuntza horren beharrik ikusten beren lanean. Hala ere, kolektibo horren lan-arloko prebentzio-kultura hobetzea oinarrizkoa da haiek ere ingurune seguru eta osasungarri batean lan egin dezaten. Beraz, ezinbestekoa da prebentzioan duten prestakuntza



azpimarratzen eta errazten jarraitzea, langile autonomoen prestakuntzari dagokionez 2021-2026 aldirako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian mantentzen den helburuari eutsiz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Langile autonomoak prestatzeko laguntza eskatzen duten erakundeen kopurua	5	0
Langileen autonomoen barruan prestatutako pertsonen kopurua	100	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prebentzio ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2023 urterako deialdia

2.- Araua

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (EHAA 149 zk., 2018ko abuztuaren 3koa). EBAZPENEA, 2022ko abenduaren 7koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, 2023rako laguntzen deialdia egiten da, ekitaldi honetan EAEko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematen duten entitate publiko zein pribatuentzat (EHAA, 241. zk., 2022ko abenduaren 20koa)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (EHAA 149 zk., 2018ko abuztuaren 3koa). EBAZPENEA, 2022ko abenduaren 7koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, 2023rako laguntzen deialdia egiten da, ekitaldi honetan EAEko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematen duten entitate publiko zein pribatuentzat (EHAA, 241. zk., 2022ko abenduaren 20koa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko prebentzio-ordezkariak (PO) izan behar duten oinarrizko mailako prestakuntza emateko diru-laguntzak ematea. Prestakuntza bi zati izango ditu: lehenengoa 16 ordukoa izango da, arau-prestakuntzari buruzkoa, eta bigarrena 32 ordukoa, prestakuntza teknikoari buruzkoa. OSALANen aurrean egiaztatutako hezkuntza-sistemak aitortutako eta homologatutako zentroek edo erakunde sindikalek edo prebentzio-zerbitzuek ematen duten prestakuntza. Hori guztia Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Alorreko Lanbide Arteko Akordioa ezarri bezala (ERABAKIA, 1997ko abenduaren 19koa, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariarena, "EAEn Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Alorreko Lanbide Arteko Akordioa" erregistratzeko eta argitaratzeko dena. (EHAA 17 zk., 1998ko urtarrilaren 27koa).



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko aurrekontuan 300.000 euroko partida bat aurreikusi da,

2023an 114 ikastaro egin dira guztira, 1.818 PO prestatu dira, horietatik 1.207 gizonak dira eta 594 emakumeak, eta 242.455,21 € lagundu dira diruz.

Arau-arloan: 65 ikastaro egin dira guztira, horietatik 15 Araban (245 PO eta 22.304,79 €-ko diru-laguntza), 26 Bizkaian (392 PO eta 38.392,01 €) eta 24 Gipuzkoan (423 PO eta 36.037,79 €).

Arlo Teknikoan 49 ikastaro egin dira guztira, horietatik 12 Araban (182 PO eta 35.735,96 euroko diru-laguntza), 20 Bizkaian (327 PO eta 59.640,42 €) eta 17 Gipuzkoan (249 PO eta 50.344,24 €).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Arauen arloko prestakuntza-ekintzak:		
• Gauzatutako ekintzen kopurua.	60	65
• Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua.	900	1.060
Arlo teknikoko prestakuntza-ekintzak:		
• Gauzatutako ekintzen kopurua.	40	49
• Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua.	800	758



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntza 2023

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 14koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearena. Honen bidez, laneko segurtasunaren eta osasunaren eremuan ikerketa-proiektuak egiteko eta Saf ra esparruan garatzen diren ikerketa-proiektuak egiteko laguntza-deialdia egiten da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/09/2304088e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305760e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa sustatzea eta emaitzak zabaltzea.

Ebazpen honen xedea da honako proiektu hauetarako dirulaguntzen deialdia egitea eta norgehiagokaraubidearen arabera arautzea:

- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuak.
- Saf  ra markoko ikerketa-proiektuak, 2022ko Saf  ra deialdi bateratukoak.

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-programak egitea, sustatzea eta garatzea.

Norentzat: Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoa sortzen duten pertsona juridikoentzat.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa: diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100eraino, 50.000 EURO gehienez.

Gauzatzeko aldia eta epea: dirulaguntzaren xede diren jarduketak bi urteko epean egin beharko dira, emakidaren jakinarazpen ofiziala jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko ikerketa: 3 proiektu aurkeztu ziren eta 2 proiekturi eman zitzaizkien laguntza. Hirugarrena ezetsi egin zen, ez zuelako ikerketa-proiektu baten egiturarik eta ez zetorrelako bat deialdiko ebazpenaren I. eranskinean jasotako gaiekin. Emandako laguntzaren % 50 ordaindu da, 25.000  proiektu bakoitzeko.



Saf ra eremuko ikerketa: 3 eskaera aurkeztu ziren eta 3 proiekturi eman zitzaien laguntza. 2023an, proiektu bakoitzari emandako laguntzaren % 25 ordaindu da. 25.000 €proiektuetako bati eta 12.500 € beste bietako bakoitzari.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	5	5
Beste enpresa batzuetan aplikagarriak izan daitezkeen diruz lagundutako proiektuen kopurua	5	5
Osalanen webgunean argitaratutako proiektuetara izan diren bisiten kopurua	500	0